



III MEMORIA SOZIALA CLECE

III MEMORIA SOZIALA CLECE

01

Joan- etorriko bidea

P. 6

Lehendakariaren gutuna

P. 8

02

Gure konpromezu soziala

P. 10

Pertsonengako
konpromezua

P. 12

Gure Konpromezu
sozialaren ardatzak

P. 18

03

Ahulenekin

P. 36

Pertsona desgaituak

P. 38

Genero indarkeriaren
biktimak

P. 42

Gizarte bazterkeria jasateko
arriskuan dauden pertsonak

P. 46

Gazteak

P. 50

Helduak

P. 54

Hautzaroa

P. 60

04

Ahaleginak gehituz

P. 64

Kolaborazio hitzarmenak

P. 66

Ekitaldiak

P. 68

Esker-onak

P. 70

Lehendakariaren gutuna
P.8



01

Joan-etorriko
bidea



01

Joan-etorriko bidea

Gure proiektu sozialaren asmoa gizartearenganako gertutasuna eta laguntasuna dira, horretarako, gure esku dagoen guztia eginaz.

CRISTÓBAL VALDERAS ALVARADO
Clece-ko Lehendakari betearazlea



Pertsonak helburu eta gizartearekiko gertutasuna adierazten dituen zerbitzu enpresa bat gara, Administrazio Publikoaren babesarekin. Zerbitzu hauek, gehienetan, beharrezkoak gizarerako, pertsonen zaintza adibide. Baita gure etorkizunerako beharrezkoak diren zerbitzuak, ingurumenaren babesa eta gure hiriaren hobekuntza adibide.

Gure lantaldea 73.300 pertsonen baino gehiagok osatzen dugu. Aniztasun haundiko lanpostuz betea, gehiengo emakumea izanik.

¿Eta zer da hobekien egiten dakiguna? Pertsonak aintzat hartu. Urteak daramatzagu hau egiten eta odolean daramagu.

Oinarri hauetatik aurrera argi genuen gure enpresaren gizarte eginbeharra pertsonen arazoei erantzuna ematea zela. Garenaz, daukagunaz eta dakigunaz baliatuz, gizatalde ahulenen gizarteratze indizea, hauek pairatzen dituzten arazoen indizea, laneratzea eta bizi kalitatea hobetzea, batez ere heldu eta umeen kasuan.

Gure enpresa, administrazioa eta hirugarren sektoreko enpresak irits ezin daitezkeen lekuetara irits daiteke. Administrazioarentzako eskaintzen ditugun zerbitzuez haratago goaz, eta gizatalde ahulak, gure enpresan, lan merkaturako sarrera topatzea ahalbidetzen dugu.

“Gure lantaldearen %9.8 gizatalde ahuletik dator”

Honi, “zirkulua istea” deitzen diogu. Gaur, gure lantaldearen %9.8 gizatalde ahuletik dator, duela 4 urteko datuaren bikoitza.

Eta hau ez da guztia. Gizartearen kontzientziazioa garatzen duten ekimenak bultzatzen ditugu, gizarteratze foroak esate baterako, baita gizatalde ahulenen bizitza hobetzen lanean diharduten pertsonen lanaren aitorpena (Konpromezu sariak). Helduen gizarteratze sozial eta garapena ere lantzen dugu, hauek gizarteratze duten garrantzia aitortuz.

Gure gizarte proiektuaren arrakastak, honen sorkuntza eta garapen naturalean datza. Ez gara datuez ari, pertsonen baizik. Gaur egun, gure proiektua langileen barnean dago, eta hauen ahala agerian geratzen da

“Ez gara datuez ari, pertsonen baizik. Gaur egun, gure proiektua Clece-ko langileen barnean dago”

gizarteratu ditugun pertsonekin hitz egiten dugunean. Haien, gaintitze istorioak, haien irribarreak, guretzat poztasun arrazoi dira, baina pertsona gehiagori laguntzeko aukera dugula ere gogora ekartzen digute.

Horretarako, hainbat administrazioen aurrera pauk ere garrantzitsuak dira. Zerbitzu sozialen garapenak bizi garen gizartearen bilakaerarekin lotura zuzena izan behar du. Hau honela, ardura orokorreko gizarte klausulak, enpleagarritasunak, berdintasunak edo lan gizarteratzeak esate baterako, lehentasuna izan beharko lukete zerbitzu prestazio kontratuetan, bai publiko eta baita pribatuetan ere.

“Pertsona gehiagori ere lagun diezaiekegu”

Administrazioen, enpresen, gizarte erakundeen eta beste agente askoren kolaborazioarekin bakarrik lor dezakegu enpleagarritasuna, gizarte integrazioa eta bizi kalitatearen hobekuntza, istorio arrakastatsu bilakatzea.

Pertsonenganako kompromezua

P. 12

Gure kompromezu sozialaren ardatzak

P. 18






02

Gure
konpromezu
soziala

02

Gure ardura soziala

↳ social -ek Clece-ren ardura soziala irudikatzen du, gizarte integratu eta bateratu bat lortzeko enpresaren ekarpena, aukera berdintasuna ardatz duelarik.



+

73.300
langile baina
gehiago

Eskuarten dugun proiektua enpresaren garapen logikotik jaio da, enpresaren jarduerari atxikituta. Clece-k pertsonen ongizatea du helburu. Egunero, 73.300 langilek beste hainbat pertsonen bizimodua hobetzeko lan egiten dute, beste hainbat zerbitzu eskainiz. Beraz, argi dago harreman pertsonalak eguneroko ogia direla, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetan proiektzio handiagoa lortuz.

Esandakoa kontua harturik, "Clece social"-en helburu nagusia pertsona ahulenei laguntzea da. Pertsona ezgaiak, genero indarkeriaren biktimak, baztertze arriskuan dauden pertsonak eta gazte langabetuak. Baita heldu

eta haurrak ere. Horretarako, "Clece social"-ek lau ardatzen dihardu: enplegarritasuna, gizarteratzea, sentsibilizazioa eta pertsonen zaintza.

Lan integrazioa da gure helburu nagusienetako bat. Clece-n lan-integrazio apustua erabatekoa da, gizarte bazterkeriari aurre eginez, plantilaren %9.8 talde ahula izanik.

Behar hontan, Clece-k balio garrantzitsu bat du eskuartean: langilea. Langileek proiektua beraiena balitz bezela jokatzeko dute, langiro integratzaile eguneroko lanaren

parte delarik eta haien lana milaka pertsonen eguneroko ongizatearen sustarai delarik.

Azken urteetan bizi izandako testuinguru zailaren aurrean, non ahulenak krisiagatik golpatuagoak izan diren, Clece bere esfortzuak bikoiztu ditu. Honela, gizarte proiektuaren garapena bizkortu eta pertsona gehiagori laguntzea lortuz, helburu honetarako erakunde eta agente sozial gehiagok parte hartuz. Azken urte honetan, emaitza garrantzitsuak lortu dira. Memoria honek mugarri eta lorpen esanguratsuenen ibilbidea egiten du.



Pertsonenganako
o konpromezua

TALDE AHULENAK:

- Lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsoneri aukerak erraztu.
- Integrazio prozesu hauek eraginkorrak eta iraunkorrak izan daitezela sustatu.
- Formakuntzaren bidez, gizatalde ahulenen enpleagarritasuna areagotu.

LANGILEAK:

- Aukera berdintasunean oinarritutako lan-erlazio marku bat eskaini, diskriminazio eza eta aniztasuna bultzatuz.
- Talentua bildu, sustatu eta atxiki. Langileei formakuntzaz eta prestakuntzaz hornituz.
- Lan-inguru osasuntsu eta seguru bat ziurtatu.
- Guztion garapen personal eta profesionala bultzatu, enpresa-proiektuaren partaide eginez.



BEZEROAK:

- Gizatalde ahulenen lan-integrazio ekimenak bultzatu.
- Administrazio eta erakunde sektorialekin batera, gero eta zabalagoak diren gizarte zerbitzuen garapenean lagundu, hauek eraginkorra eta kalitatezkoa izanik.
- Kontratututako zerbitzuez gain, jarduera osagarriak eskeini, bezero eta erabiltzaileek balio gehigarri bat jaso dezaten.

ERABILTZAILEAK:

- Bizi kalitatea hobetu eta erabiltzaileen ongizatea sustatu.
- Gizatalde ahulenen interesangatik borrokatu, pertsona helduak eta haurrak adibide.
- Clece-k zaindutako gizataldeen arteko interrelazio ekimenak sustatu.



**GIZARTEA:**

- Gizarte balioak, dibertsitatearekiko errespetua eta elkartasuna sustatzen dituzten hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuak garatu.
- Gizatalde ahulenekin sentsibilizatutako gizarte integratzaile eta arduratsu bat sustatu.
- Elementu estigmatizatzaileak edo baztertuak bihur ez daitezzen, aurre-iritzi eta estereotipoen aurka borroka egin.
- Jarduera eta komunikazio kanal ezberdinen bitartez, gizatalde ahulenen errealitate sozialaren inguruan informazio eman.



Gure konpromezu
sozialaren ardatzak

Clece Social"-ek, gaur egun gizartea gehien kezkatzen duten kontuekin sintonitzen du. Langabezia edota pertsona ahulenen egoera bezalako gaiak. "Clece social"-ek lau ardatz lantzen ditu lan merkaturako sarreta eta gizarte ongizatearen inguruan:



ENPLEAGARRITASUNA



INTEGRAZIOA



SENTSIBILITATEA



PERTSONEN ZAINITZA

ENPLEAGARRITASUNA:

Enplegu sorkuntza dinamizatzea eta langileen lan baldintzen hobekuntza.

**INTEGRAZIOA:**

Gizarteratzea sustatzeko, lan-merkaturatze zailtasun bereziak dituzten gizataldeen artean mekanismo ezberdinak bultzatu.

**SENTSIBILIZAZIOA:**

Gizartearen inplikazioa lortzeko, gizatalde ahulenen errealitatea azaldu.

**PERTSONEN ZAINZA:**

Zaintza eta erabiltzaileen arreta garatzeko ekimenak landu, batez ere heldu eta haurren kasuan.



ENPLEAGARRITASUNA:




2,6%
Plantila
hazkundera

Langabezia tasa altua da gaur egun arazo sozial haundienetako bat, eta bertan enpresek funtsezko papera jokatzeko dute, lan-merkatuaren dinamizazioan. Enpresaren bilakaerak eta giza baliabideen kudeaketak eragin zuzena izan dute bai langile kopuruaren hazkunderan eta baita jada egon badauden lanpostuen hobekuntzan.

Azken urteetako joerari jarraituz, plantilak %2.6ko hazkundera izan du azken hamabi hilabeteetan. Honela, Clece, estatu mailan hirugarren postuan da eskaintzen dituen lanpostu kantitateagatik, 73.300 pertsona baino gehiagori lana emanez.

Langile berriak talde haundi batera gehitzen dira, non pertsona baikotzak gehitu eta bere lekua duen. Talentuaren gestioa, integrazioarekiko konpromezua, berdintasuna eta osasuna eta segurtasunaren sustapena dira lan-inguru profesional, anitz, kolaboratzaile eta aukera berdintasunaren oinarriak. Lan inguru honek langile bakoitzaren garapen pertsonal eta profesionala lantzen ditu, enpresaren garapena bultzatuz.



PLANTILAREN EBOLUZIOA
(2016ko Ekaina)



82%
EMAKUMEEN




18%
GIZONEN

PLANTILA BANAKETA

LANGILEA KOPURUA LURRALDEKA

Andaluzia	15.933
Aragoi	880
Asturiak	1.195
Balearrak	1.131
Kanariak	3.643
Kantabria	524
Castilla - La Mancha	1.594
Gaztela eta Leon	5.640
Katalunia	12.965
Ceuta	227
Extremadura	598
Galizia	3.234
Errioxa	462
Madril	13.558
Melilla	877
Murtzia	662
Nafarroa	359
Euskal Herria	1.109
Valentzia	5.678
Portugal	2.069
Erresuma Batua	977





TALENTUAREN KUDEAKETA

Talentua bildu, sustatu eta atxiki. Helburu honekin, Clece-k formakuntza eta prestakuntza ematen ditu, langileen igoera eta norberaren garapen pertsonala bultzatuz. Azken urtean 485.626 formakuntza ordu eman ziren, guztira 2.044 kurtso ezberdinetan, bertan 25.500 langileek parte hartu zutelarik.

GAITASUNEN EBALUAZIOA

Gaitasunen kudeaketa eredu, ebaluazio komun eta homogeneousko sistema, lanpostua garatzeko behar den gaitasunean oinarritzen da. Emaitzak, heziketa eta garapen egitasmoen lotuak daude.

Estruktura postuen %75a baino gehiago, ebaluazio sistema honi lotua dago, honela gure lankideen garapen profesionala bultzatuz.



BERDINTASUNA SUSTATZEN

Enpresak dituen berdintasun planek gure konpromezua zuzendu eta inplementatzea baimentzen du. Aurtengo urtean, jazarpen-protokoloak berrikusi eta berridatzi dira, hauek argiagoak izan daitezen, sentsibilizazio eta formakuntza akzioak bultzatuz.

SEGURTASUN LABORALA

Osasuna eta segurtasuna bermatzen dituen inguruaren sorkuntza enpresako ekimen eta erabaki guztietan nabari da. Langile guztiak lan-arrikuaren prebentzioan nahasteko, heziketa behar beharrezkoa da. Guztira, 149.426 heziketa ordu eman dira gai honen inguruan.



PROFESIONALTASUN ZIHURTAGIRIAK

Clece-k Andaluziako batzordeko hezkuntza, kirol eta kultura kontseilaritzarekin batera eta Andaluziako "Comisiones obreras" –ko konfederazio sindikalararekin batera, lan esperientziaren bidez etxez-etxeko zerbitzuko langileen kompetentzia profesionalen ebaluazio eta akreditazioarako kolaborazio hitzarmen bat sinatu dute.

“lehen deialdian 3500 eskaera baino gehiago tramitatu zituen Clece-k”

Osasuna eta segurtasuna bermatzen dituen inguruaren sorkuntza enpresako ekimen eta erabaki guztietan nabari da. Langile guztiak lan-arrikuaren prebentzioan nahasteko, heziketa behar beharrezkoa da. Guztira, 149.426 heziketa ordu eman dira gai honen inguruan.

INTEGRAZIOA:




gizatalde
ahulenetako
7.189
langile

Baztertearen baldintzatzaile nagusietako bat langabezia da. Arazo hau bereziki sentsiblea da gizatalde ahularekin, non langabezi tasak oso gogor jotzen duen. Clece-k egiten duen lanari esker, gaur egun, 7.189 langile gizatalde hontatik datoz erabat integratuta konpainia barruan, %9,8 osatuz.


Azpimarragarria da integrazio honen garapena handituz joan dela azken urteotan, azken urte hontan gorakada adierazgarria izanez 950 langileren gehitzearekin, hauek gizatalde ahulenetatik datozelarik. Honek ordea aukeraketa prozesuan esfortzu handiagoa dakar. Hau dela eta, ahultasun egoeran dauden pertsonen langabezia arazoari aurre egin nahian, Clece-ren helburua integrazio prozesu honen iraunkortasunean eta eraginkortasunean lana egitea da.

Lan merkaturako sarrera igarotzean, gizatalde ahulenetatik datozen pertsonen kontratazioaren elkarrenganako onura agerian jartzen da. Lan-aukera honi esker, langileek bertan ikusten dute autonomia eta partaidetza soziala erdiesteko aukera. Bestalde, Clece-k, balioa ematen dio bere negozioari eta lan-arlo kolaboratibo eta solidarioetatik probesten dira.

E·social



LANGILEEN INTEGRAZIOAREN GARAPENA CLECE-N
(2016ko Ekaina)



GIZATALDE AHULENEN INTEGRAZIOA
(2016ko Ekaina)

LAGUNTZA TALDEA

Gizatalde ahulenetatik datozen langileen adaptazioa bultzatzeko abian jartzen da “Ekimen profesionalari laguntza unitatea”.

Oraindik ere hasierako fase batean, lan posturako adaptazioa eta lan arloko inklusio baldintzen hobekuntzara bideratuta dagoen baliabide bat da. Unitate honek arreta soziorabial berezia, ongizate psikosoziala eta gizarteratzea eskaintzen ditu. Honen papera behar beharrezkoa da edozein unetan sor daitezkeen aukerak antzemateko edota edozein eskari konpontzeko –aukeraketa, inkorporazioa, mantenimendua eta lan garapena- jarraipen pertsonalizatu eta kalitatezko bati esker.

LANKIDETZA HITZARMENA

Clece-k hirugarren sektoreko 350 erakunderekin elkarlanean dihardu, egitarau, saio eta proiektu bateratuen bidez, gizatalde ahulenen egoera soziorabiala hobetzeko lanean. Lankidetzat hau sektore pribatuko eta publikoko bezeroengana hedatzen da, non azken urtean gizarteratze arloan 80 hitzarmen zehaztu diren.

“Clece-k hirugarren sektoreko 350 erakunderekin elkarlanean dihardu, non azken bi urteotan 80 hitzarmen sinatu diren”

HIRUREN LANKIDETZA

Lan-munduko integrazio prozesuan parte hartzen duten faktore ezberdinen arteko lankidetzaren adibide argia da “kontratazio konpromezudun formakuntza”.

“Clece”, “Pindari Fundazioa” eta “Madrileko komunitateko kultura, turismo eta enplegu kontseilaritzako zerbitzu publikoa”-k, lehengo urtean jarri zuten abian proiektu hau, non gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan zeuden 100 emakumek Sektore Soziorabialarioko Profesionaltasunaren Ziurtagiria lortu zuten. Hauen %60 baino gehiago “Clece-ko etxeko laguntza zerbitzu”-ra gehitu dira, lan kontratu batekin eta sektore barnean garatzeko eta profesionalizatzeko aukera ematen duten formakuntza arautu batekin.

VALLADOLIDEKO UDALETXEAREKIN

Gizarte baztertze arriskuan edo gizatalde ahuletatik datozen pertsonen lan insertzioa bultzatzeko Clece eta Valladolideko udaletxea elkartu ziren. Bi erakunde hauek akordio batetara iritsi ziren, Valladolideko udaletxeak kontratatutako zerbitzuetan noiznahi suertatzen diren postuak, gizarte bazterkeria arrisku edo egoeran, genero indarkeriaren biktimak eta pertsona desgaituak betetzea proposatu zuen Clece-k.

Gainera Clece-k formakuntza praktika ez-laboralak erretzen ditu zerbitzu sozialen zinegotzigoak garatutako instituzioetan. Hitzarmen hau gizarte sentsibilizazio mezuekin eta hedapen kanpainekin osatzen da.



—
Informatu,
azaldu,
zabaldtu eta
sentsibilizatu

Iniziatiba sozialek iraunkortasunaren bidetik jarrai dezaten eta laguntza berriak gehitu daitezten behar beharrezkoa da sentsibilizazio lanean gogor jardutea. Gure esfortzuarekin, lankidetasunarekin eta korresponetsa-bilitatea bakarrik lortuko dugu Clece-ren gizarte proiektuak aurrera egitea.

Iniziatiba ezberdinak direla medio, pertsona eta erakunde andana gehitu dira kolektibo ahulenen errealitate eta erronketan, haien ikuspuntua azaltzera bultzatuz eta denontzako abaguneak dauden gizarte justu baten bilakaeran parte hartuz.

Konpromezu hau lortzeko, Informatzea, azaltzea, zabaltzea eta sentsibilizatzea dira gakoak. Azken urtean, ekimen-egitarau bete baten ondorioz, gorakada handia jasan duenak. Hauetariko batzuk honako hauek dira; konpromezu sariak, azaroaren 25 eko genero indarkeriaren aurkako Mundu-Egunean egin diren sentsibilizazio

ekimenak, integrazio foroak edota abenduaren 3 ko desgaitasuna duten pertsonen egun internazionala.

Sariak, jardunaldiak, topaketak, foroak, kontzentrazioak, aldarrikaneak, sare sozialetan kanpainak edo clecesocial.es web orria. Orotariko formatuak eta hedabideak gero eta zabalagoa den publiko batengana, enpresengana, administrazioengana, erakundeengana eta hiritarregana iristeko.



KONPROMEZU SARIAK

Konpromezu sarien bigarren argitalpena Sevillan egin zen. Sari hauek, gizatalde ahulei eta helduen arretari gehien laguntzen dieten tokiko gizarte proiektuei eskaintzen zaizkie.

Madriren ospatutako lehen deialdia eta gero, aurtengoan, deialdia Andaluzian, Ceuta eta Melillan izan da. Lau sarituak ondorengoak izan dira:

- Desgaituen kategorian, Haur desgaituentzako arreta zentrua (CADI), “kirol inklusiboa” lanarekin.
- Baztertze sozialaren atalean, lan diru-kutxa, “Incluyendo a los excluidos” proiektuarekin.
- Genero indarkeriaren atalean, Almeriako adoratriz komunitatea, “Emaús” proiektuagatik.
- Helduen kategorian, DYA elkarteak, “eskuz esku: mundua aldatzen duten nagusiak” lanagatik.



INTEGRAZIO FOROAK

Clece-k foroen ospakizunekin jarraitzen du. Foro hauetan, elkarrizketa eta eztabaidak direla medio, gizarte-eragile ezberdinek gizatalde ahulenei dituzten integrazioarako erronkak lantzen dituzte.

Bi edizio berriren ospakizunak sendotu du Foroek ekimena. “bizitza aldatzeko enplegua” lehen azpian, integrazioarako hirugarren foroak azaroan ospatu zen Las Palmas (kanaria handikoa), baztertzeko arriskuan dauden pertsonen zuzendua.

“Talentua enplegatuz” izenburuarekin, Valladolid laugarren foroak, non lan mundurako sarreraren ikuspegi orokorra eman zen.



25N “INDARKERARIK GABEKO BIZITZA”

“Indarkeriarik gabeko eta errespetudun bizitza” 10.000 pertsonen baina gehiagok bere egin zuten esaldia azaroaren 25ean, Genero indarkeriaren kontrako egunean. Clece-ko langile nahiz bezeroek argi utzi zuten beren arbuiatzea gai honekiko, baita biktimganako solidaritatea. Esku margotuak, oihalak, etabar erabili ziren Clece-ko lan zentruetan. Sare sozialak Sare sozialak #unavisasinviolencia hashtag-arekin izan ziren bozgoragailu kanpainan.



ÓXIDO

Kanariar Sara Yun artistaren Óxido argazki erakusketak Puerto de Luz-ko Las Palmas “kanaria handikoa” utzita geratu zen itsasuntzi bateko lau eskifaiakideen eguneroko bizimodua kontatzen du, beren etxetik milaka kilometrotara.

Lagina Clece-k babestua, “bizitza aldatzeko enplegu bat” hirugarren foroaren arrazoiagatik. Espacio de Artes de Tenerife (TEA)-ko azaroko estreinaldiaren ondoren, urtarrilean erakusketa Kanaria Handiko Espazio Digitalera eraman zuten.





3D HESIAK APURTU

Abenduaren 3an, pertsona desgaituen egun internazionalan, Clecek hainbat ekimenetan parte hartu zuen gizartean desgaitasuna duten pertsonak dituzten trabak ezabatu eta hauen inguruan gizartea kontzientziatzeko. Beste ekimenen artean, Carlet-eko Udaletxearekin batera, “puska ditzagun harresi mentalak, harresi fisikoak puskatzeko” adierazpena izenpetu zen. Fundación Ranstad-ekin kolaborazioan, Clece-ko langileek Sevillan saskibaloia egokituko partida bat jokatu zuten, “Nire azalean jarri” izenaren lelopean. Avilesen, Asturiasko Integra CEE-k herritarren sentsibilizazioaren jardunaldia antolatu zen, beste hainbat asoziazio eta organismorekin.



IRAUPEN-LASTERKETA

Urtean zehar, Clece-k ez du inongo zalantzarik izan kausa sozialak sostengatzeko garaian.

Enpresa fidela izan da urteko karrera ezberdinetan, osasun, zerbitzu sozial Ministerioak antolatutako “genero indarkeriaren aurka irteera dago” edo Behar Bereziak dituzten Haur Desgaituen Defentsa Elkarte (Dedines) taldeak bultzatuak adibide.

Beste karrera solidario batzuk: Ejido emakumearen lasterketa 2015; #pinkrunning; Xàtiva-ko aniztasun funtzionalaren IX lasterketa; Family Color Run; II Intermón OxfamTrailwalker o “12 ordu korrika 2016”.



CLECE KANALAK

clecesocial.es eta *inclusionyempleo.es* kanalek beren informazio eta dibulgazio jardurekin jarraitu dute, non benetazko protagonisten istorioak eta dokumentu interesagarriak aurki daitezke. Facebook eta Twitter ere interakzio puntu garrantzitsu bilakatu dira, lehen urtean 2.672 eta 961 jarraitzaile lortuz.

Egonezin berberak partekatzen dituzten pertsonak bozgoragailu garrantzitsu izan dira sentsibilizazio kanpaina ezberdinetan, azaroaren 25ean ospatu zen #unavidasinviolencia adibide.



Clecek sektore soziosanitarioan duen jarduerak pertsona ezgaituekin, zailtasunak dituzten gazteekin, genero indarkerien biktimekin edo baztertze arriskuan dauden pertsonekin eguneroko harremana baimentzen du.



145

erresidentzia

92

Eguneko zentro


Era berean, Clece-k lotura estua du pertsona helduekin, estatu mailan, 145 erresidentzia, 92 eguneko zentru eta etxez-etxe 86.600 pertsonari zerbitzua ematen bait die.

Gizatalde hauekin duen kontakua ez da profesionala bakarrik. Beraien beharrak hain gertutik ezagutzeak hainganako sentsibilitatea eta enpatia garatzen ditu. Horregatik, Clece-k pauso bat gehiago ematen du, eta bere proiektu sozialaren zati bat zaintza gehiago behar dutenei dedikatzen die.

Beste urte batez, jarduera terapeutikoek pisu handia izan dute atal honetan, eta alternatiba asko eskeini dira osasun fisikoa eta mentala zaintzeko. Bizi kalitatea hobetzeko erantzun gisa hidroterapia, hortikultura, 2.0 irtenbideak edota animalterapia erabili dira.

Terapia hauekin batera, Clece-k protokolo berriak adoptatu ditu, Pertsonen Zuendutako Arreta Integrala (AICP) eta "loturetatik aske" egiaztapenaren implementazioa adibide.

Haur eskolen atalean, hezkuntza jarduerak, jarduera ludikoak eta aisialdikoak bultzatu dira, txikienen sentsibilitatea eta solidaritatea estimulatzerara orientatuak, lantegi solidarioak, jaki eta jostailuen dohaintza adibide.



TERAPIA BERRITZAILEAK

— Robot humanoideak eta gela multizentzumenezkoak

Robot humanoideak eta gela multizentzumenezkoak dira Clece-k pertsona helduentzat garatu dituen azken terapiak. Casillas de Ángel (Fuerteventura) –go zahar etxean, robot Petetea instalatu da, Madrilgo Rey Juan Carlos Unibertsitatearen laguntzarekin. Robotak 45 zentimetro ditu eta musikaterapia eta akuilatze kognitibo saioetan erabiltzen da. Helburua, buruko gaixotasuna duten pertsonekin interakzio positiboa edukitzea da. Integrazio sozialaren zentroan, CIS, Barakaldon, Snoezelen estimulazio multisentsorial gela inplementatu da. Tratamendu individualizatu eta taldekakoen bitartez, bereziki buruko gaixotasuna dutenei zuzenduta dago, jokaera aldaketak eta erorketa arriskua dutenei zuzendua.





LOTURARIK GABE

Camargon kokatuta dagoen Parayas eguneko zentruak eta Santanderren kokatua dagoen General Dávilak, "Loturetatik aske dagoen zentrua" egiaztapena jaso zuten, Confederación Española de Organizaciones de Mayores (CEOMA)-en eskutik. Bi zentru hauek, Zerbitzu Sozialen Kantabriar Institutua, ICASS-en kide dira.

Honela, Clece, arreta-modelo berri honara batzen da, epe luzeko zentruetan loturen arazoizko erabilera bilatuz. Gainera bere zentruak "loturetatik aske" bezala akreditatzeko erronka onartzen du.



HELDUA BERE ZAINZAN AKTIBOKI

Fundación Pilares-ekin kolaborazioan, Clece-k AICP (Pertsonen Zuzendutako Arreta Integrala) ereduaren hartzea hasi du. Eredu honek, antzinako arreta indibidualizatuz gain, zerbitzuen integrazioa eta pertsonen orientazioa bultzatzen ditu. Beharrak asetzeko, bakarkako beharretara moldatzeaz gain, pertsonak aktiboki bere arreta-prozesuan parte hartzea bultzatzen da, bere autonomia eta independentzia nabarmenduz.



ZAINZEKO HEZI

Gaur egun, estatu mailan, 45.000 pertsona baino gehiago dira mendeko senideak zaintzen dituztenak, eta kasu batzuetan, etxex-etxeko laguntzarekin soilik. Hauek, zaintzaile ez profesionalak izenez ezagutzen dira. Batzuetan, errekurtso ekonomiko faltagatik izaten da eta beste batzuetan erantzunkizuna beraiena dela uste dutelako. Eguneroko arreta honek, askotan, estresa, antsietatea edota depresioa sortarazten die senide zaintzaileei. Clece-k, psikologo, langile sozial, nutrizionista, aisialdi monitore etabarrez sortutako profesionalen bitartez, Malagan hitzaldiak ematen ditu, senide zaintzaileek bai bere burua eta baita senidearena zaintzeko teknika ezberdinak ikas ditzaten.



HEZKUNTZA. ETENGABEKO BERRIKUNTZA

Aurtengo urtean, Clece-k kudeatutako 113 Haur eskolek, hezkuntza berrikuntzan esfortzu handia egin dute, ahalmenak, sormena, eta txikien zentzua estimulatzeko.

Esfortzu hau, sari ezberdinekin ezagutua izan da. Honen adibide dugu Escuela Infantil Los Sauces de Valdemoro (Madril)-ek lortua, Hezkuntz Berrikuntzari eta Bikaintasunari Saria, edota "haur eskola" aldizkariak emandako 5 eskolen sariak (Clece-ko 30 zentru izan ziren aipatuak). Hezkuntza berrikuntza eta bikaintasunari saria, Asociación Mundial de Educadores Infantiles AMEI-WAWCE eta Hermez Ibéricak deitutako saria da.

Pertsona desgaituak

P. 38

Genero indarkeriaren biktimak

P. 42

Gizarte bazterkeria jasateko arriskuan
dauden pertsonak

P. 46

Gazteak

P. 50

Helduak

P. 54

Hurtzaroa

P. 60





03

Ahulenekin



Pertsona desgaituak



DESGAITASUN EGOERA ESPAINIAN


Iturria: Estadística institutu nazioanala 2014

Lan garaian dauden Espainiako biztanleen % **4.7** desgaituak dira

batazbesteko tasa % **35**ekoa da

16-24 urte bitarteko gazteen artean langabezia tasa % **72.1** ekoa da

CLECE-KO LANGILE DESGAIUEN INTEGRAZIOAREN GARAPENA (2016ko ekaina)



Clece-k pertsona desgaituen lan gaitasuna eta talentua aintzat hartzeaz gain, langile hauek enpresa barruko giro onaren parte izatea eta baita erreferentzi positiboaren eredu izatea ere aintzat hartzen du. Honen islada, gaur egun 5.051 langile daude Clece barruan nolabaiteko desgaitasunarekin. Sentsibilizazio ekimen ezberdinen bitartez, Clece-k, pertsona hauen kontratazioaren bitartez, gaur egungo hesien eraisketa bultzatzen du.

Asistentzia arloan, Clece-k desgaitasun arreta zentru ugari kudeatzen ditu. Ekimen honi esker, ongizatera eta bizi kalitatera laguntzen duten aisi eta sozializazio jarduerak edota terapiak abian jartzen dira.



NIRE LARRUAN JARRI

Pertsonen larruan jartzeak, beren emozioak partekatzea eta ezagutzea esan nahi du, eta hauxe da funtsean “nire larruan jarri” inizatibaren helburua, desgaitasunik ez duten pertsonak desgaitasuna dutenen larruan jartzea, hauen beldurrak eta kezak ulertzeko.

Desgaitasunaren nazioarteko eguna zela eta, Cleceko saskibaloia egokitu taldeak partidu bat jokatu zuen Sevillan “Vista Azul” taldearen aurka “dos hermanas” gurpildun aulkiekin. Partidu hau, “Plaza de la Encarnación” izeneko topalekuan egin zen “Fundación Ranstad”-en kolaborazioarekin. Partidu honetan, desgaitasunik ez duten pertsonak desgaituen larruan jartzen dura, hauen eguneroko erronkak gertutik bizitzeko.



ZAILTASUNEI AURRE EGIN

Erein, hazi eta bildu... Las Palmas (kanaria handikoa)-ko CAMP Reina Sofia-ko desgaitasun intelektuala duten pertsonen baratz urbano baten laborantza eta mantenimenduaren bitartez aurkitu dute aniztasunari aurre egiteko era bitxi bat.

Hauak, astelehen eta ostiralero garbiketa, ereinketa, ureztatze, hazi selekzio eta ongarriztatze lanak egiten dituzte haien lursailetan. Honez gain, hilabete behin gainontzeko baratzezainekin biltzen dira elkarte honen funtzionamenduz hitz egiteko. [Hortikulturaren bitartez onura terapéutico ezberdinak eta gizarteratzea lortzen dira](#). Aktibitatea beraz osolagungarri zaigu ongizate fisiko eta mentalean.



GURASO ESKOLA

Desgaitasun psikikoa duten pertonen familiak antzerako kezka eta sentimenduak partekatzen dituzte, eta askotan, laguntza eta baliabide bereziak behar dituzte erronka berei aurre egiteko. Errealitate honen jakitun Valentziako [“La Llum de Carlet izeneko desgaitasun psikikoa duten pertonen erresidentzia”](#) gurasoen eskola eta desgaitasuna-rekin kontaktzen du.

Lehen edizioko emaitza onen ostean, Eskolako bigarren kurtsoa udaberriko menu tailerrak estreinatu zuen. Tailer honetan, familiarrei, elikaduraren eta menuen inguruko informazioa erraztu zitzaion. Gurasoen Eskolarekin, erresidentziak, gurasoen eta familiarren gaitzea eta hauen topaketa bultzatzea duen erlazio eredu baten alde egiten du apostu.



LANERA BUELTA

Trafiko-istripu batek eragindako lesioen ondorioz, Bertak lan egiteari utzi behar izan zion. Zoritzarrezko gertakari honek bere bizitza goitik behera aldatu zuen, arlo familiarra, soziala eta lan-arloarizuzen zuzenean eraginez. Istripu hau 33 urte zituelarik gertatu zitzaion, eta zoritzarrez, segurtasun zaintzaile izateari bizkar eman behar izan zion, bere lana alde batera utziz.

Clece-ren laguntzarekin, 8 urteko ezgaitasunaren ostean [Berta lanera bueltatu zen](#). 2015-eko irailetik Kanariar uharteetako Gobernu Delegazioan dabil lanean, urte bateko kontratuarekin eta zehaztugabeko proposamenarekin..



BORROKA EGITEARI UKO EGIN GABE

[Isabelek ez dio borroka egiteari uko egin](#) 23 urterekin, Granada-ko neska hau desgaitasunen bat duten pertsonen pairatzen duten gizarte diskriminazioaren aurkako lekuko dugu. Neska honen entzumen-desgaitasunak haurtzaroan eta pubertaroan hainbat zailtasun eragin zizkion, halere Isabelek aurre egin eta ikasten jarraitu zuen.

Derrigorrezko irakaskuntza bukatu eta formakuntza profesionaleko ziklo bat gainditu ostean, hain zuzen ere erizaintzan laguntzaile izeneko zikloa, Isabel lan-mundura erantsi zen. Isabelek berdintasunaren borrokan gogor dihardu. Hain da funtsezkoa berarentzat berdintasuna non lan-zentru berezian zuen lana uztearen arrazoia. Ez zuen bidezko ikusten bere desgaitasunak besteekiko ezberdin sentiaraz zezan, trebetasun berdina izanik. Gaur egun Granada-ko Unibertsitatearen garbiketari dihardu, egunen batean erizaintzako laguntzaile izatearekin amets eginez.



—
Genero
indarkeriaren biktimak



GENERO INDARKERIA ESPAINIAN


—
Espainian bizi eta bertakoak diren emakumezkoen **%12.5k** genero indarkeria jasan du bere bikote edo bikote ohiaren eskutik

—
2015 urtean, **57** emakumek galdu zuten **bizia**

—
120.000 herritarrek salatzen dute genero indarkeria urtero

—
